



**2011KO UZTAILAREN 6KO**  
**EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako uztailaren seian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Arantxa Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Toki Entitateen Erregimen Juridiko, Antolaketa eta Funtzionamendu Arautegiak bere 38. artikuluan xedatutakoari jarraituz ondorengo puntuen azterketa, erabakitze eta jakinaren ginean gelditzea du helburutzat batzarraldi honek.

**I.- ALKATE-ORDE ETA GOBERNU BATZORDEAREN OSAKETARI BURUZ ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren tokiko gobernu batzarraren partaide eta alkateordei buruz emandako alkatezaren ebazpenaren berri ematen da.

Alkatezaren ebazpen horretan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onartzeari buruzkoak, bere 52.1. artikuluan ezarritakoa jarraiki, tokiko gobernu batzordeko partaide izendatu dira ondorengo zinegotziak: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Halaber eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onartzeari buruzkoak bere 46.1. artikuluan ezarritakoa jarraiki, tokiko gobernu batzarreko honako partaide hauek izendatu dira alkateorde:

- Lehen alkateorde Kepa Goenaga Alikostes.
- Bigarren alkateorde Haizea Mendia Iztueta.
- Hirugarren Alkateorde Inazio Estensoro Eskisabel.
- Laugarren Alkateorde Andoitz Garmendia Zubeldia.

Osoko Bilkura jakinaren ginean gelditzen da.

**II.- UDAL TALDE POLITIKO ETA BOZERAMAILEAK.-**

Alderdi ezberdinetatik jasotako komunikazioen arabera Lazkaoko Udalaren talde politiko eta bozeramaileak honako hauek dira:



- BILDU udal talde politikoa. Bozeramailea Haizea Mendia Iztueta.
- EAJ udal talde politikoa. Bozeramailea Inazio Estensoro Eskisabel.
- PSE-EE (PSOE) udal talde politikoa. Bozeramailea Juan Manuel Serna Portugal.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

### III.- ALKATEAREN LIBERAZIOA ETA ORDAINSARIAK.-

Alkateari egun osoko lansaioa jartzea proposatzen da lansaio oso horretarako ordainsari moduan urteko BERROGEITA SEI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA ZORTZI (46.828,00 €) EUROko zenbateko gordina izatea proposatzen delarik.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du bai puntu hau bai eguneko gai zerrendako hurrengo puntua mahai gainean uztea proposatzen dutela, aztertze eta eztabaidatzeko denbora gehiago izatearren.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du berari ere ondo iruditzen zaiola aztertze denbora gehiago izatea.

Alkateak esaten du ados daudela gaia aztertze denbora gehiago ematearekin eta hilabete hau amaitu baino lehen beste osoko bilkura bat egingo denez, orduan eztabaidatuko dela berriro eta orain gaia mahai gainean gelditzen dela.

### IV.- TALDE POLITIKOEN ETA ZINEGOTZIEN EKONOMI ASIGNAZIOAK.-

Aurreko puntuan adierazitako arrazoiengatik, gaia mahai gainean gelditzen da.

### V.- OSOKO BILKURAREN ALDIZKOTASUNA ETA EGITE ORDUA.-

Osoko Bilkuren aldikoitasun eta hauek egiteko egun eta orduari buruz, Osoko Bilkurak, aho batez, ohiko batzaraldiak hilean behin egitea erabakitzen du. Bilkura hauek hileko azken ostegunean egingo dira, arratsaldeko 7 terdietan.

### VI.- BATZORDE INFORMATZAILEEN SORRERA ETA BATZORDE HAUETAKO PRESIDENTE-EN IZENDAPENAREN PROPOSAMENAK.-

Batzorde Informatzaileen sorrerari buruz honako proposamena egiten da:

- Partehartze, Komunikazio eta Gazteria Batzordea.
- Ogasuna, Pertsonala eta Antolaketa Batzordea.
- Hirigintza Batzordea.
- Gizarte Zerbitzua eta Inmigrazioa Batzordea.
- Ingurugiroa eta lehen sektorea Batzordea.
- Berdintasuna eta emakumea batzordea.
- Kirola.
- Hezkuntza, Euskara eta zerbitzuen sektorea Batzordea.
- Kultura eta festak Batzordea.



Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du gai honetan ez direla sartuko, ez onartzeko ez ezeztatzeko.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du hasiera batean kultura eta kirola batzorde batean planteatzen zirela eta beraien bi batzordetan izatea eskatu zutela eta orain ikusten dutela horrela planteatzen dela. Esaten du, baita ere, beste batzorde berri egon dadin nahiko luketela, enpleguaren inguruan, honek bere barne autonomoak, merkataritza, enpresa txikiak eta abar hartuz.

Alkateak erantzuten dio aztertuko dutela baina momentuz ez dela batzorde hori sortzea planteatzen.

Serna zinegotziak esaten du batzordeen funtzionamenduari dagokionez, batzordeko bileren akta jasotzea eskatuko lukeela.

Alkateak erantzuten dio batzorde guztietako bileren akta jaso dadin saiatuko direla.

Estensoro zinegotziak esaten du batzorde hauen sorreraren aurrean abstenitu egingo direla.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (BILDU), aurkako boturik gabe eta 6 abstentzioz (EAJ, PSE-EE) proposamena onartu egiten du.

Alkateak esaten du batzorde hauetako presidenteei dagokionez eta legediak dioena jarraitzeko, presidenteetarako proposamena batzordean bertan egingo dela eta ondoren Osoko Bilkurara ekarriko direla bere oarmpenerako. Aurreratzen du BILDUK honako hauek proposatuko dituela batzordeetako presidentetarako:

- Partehartze, Komunikazio eta Gazteria Batzordea: Urtzi Iruin.
- Ogasuna, Pertsonala eta Antolaketa Batzordea: Kepa Goenaga.
- Hirigintza Batzordea: Azeari Andonegi.
- Gizarte Zerbitzua eta Inmigrazioa Batzordea: Maialen Aldasoro.
- Ingurugiroa eta lehen sektorea Batzordea: Andoitz Garmendia.
- Berdintasuna eta emakumea batzordea: Maialen Aldasoro.
- Kirola: Haizea Mendia.
- Hezkuntza, Euskara eta zerbitzuen sektorea Batzordea: Arantza Bengoa.
- Kultura eta festak Batzordea: Haizea Mendia.

#### VII.- UDALAK PARTE DUEN ERAKUNDEETAN UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA.-

Udalak parte hartzen duen organu kolegiatuetan ordezkariak izendatzeari buruz, honako proposamen hau egiten da:

- GOIEKIn: Azeari Andonegi Beristain.
- Goierri Beheko Industria Lurrari: Azeari Andonegi Beristain.
- Goierriko Herrien Ekintzan: Arantza Bengoa Gorosabel.
- Ikaslan Fundazioan: Azeari Andonegi Beristain.



- EUDELen: Azeari Andonegi Beristain.
- Sasieta Mankomunitatean: Azeari Andonegi Beristain, Andoitz Garmendia Zubeldia; ordezkoak, Kepa Gonaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta.
- GOIMENen: Andoitz Garmendia Zubeldia.
- Enirio-Aralar Mankomunitatean: Azeari Andonegi Beristain.
- Tolosako Hiltegiaren Mankomunitatean: Azeari Andonegi Beristain.
- Gipuzkoako Ur Kontsorzioan: Azeari Andonegi Beristain.
- San Benito Ikastolan: Urtzi Iruin Arruti.
- Beneditarren Fundazioan: Azeari Andonegi Beristain, Haizea Mendia Iztueta.
- Lazkao Lantzen, S.A. Udal Elkartearen:

BILDUtik Azeari Andonegi Beristain, Kepa Goenaga Alikostes, Andoitz Garmendia Zubeldia.

EAJtik Patxi Albisu Estensoro.

PSOEtik Juan Manuel Serna Portugal.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du hausnarketa txiki bat egin nahiko lukeela proposamen honen aurrean eta gehitzen du Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa eta Ikaslan Fundazioan ordezkari bera izatea hobea litzakela, ia beti bi erakunde hauetako bilerak leku berean eta bata bestearen ondoren izaten direlako.

Alkateak erantzuten dio kontutan hartzen duela esan duena.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du gai honen inguruan izandako bileran esan zuenean berresten dela, hau da, ez dela egon aukerarik udalaz gaineko inolako erakundetan gobernu taldeko ez den ordezkari izendatzeko aukerarik eta hori kritikatu egiten dutela eta agerian jartzen dutela hemen.

Estensoro zinegotziak esaten du beraiek bi proposamen egien zituztela, bata industrialdeko ordezkarietzaz arduratzeko prest egongo litzakela eta bi, Sasieta ordezkari izan inguruan, eta Sasieta bi ordezkari direnez, ordezkari bat beraiena izatea planteatzen zutela, gainera Sasieta inguruan sentzibilitate ezberdinak daudela kontutan izanda eta ondo ikusiko litzakela aukera hori eman izan balitz. Bukatzen du esanez aurkeztu den proposamena ikusita abstenitu egingo direla.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (BILDU), aurkako boturik gabe eta 6 abstentziaz (EAJ, PSE-EE) proposamena onartu egiten du.

### VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

